



Arloa: FINANTZA-ZERBITZUAK

# Banku-eragiketak. Hastapena



**kontsumoBIDE**

KONTSUMOKO  
EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO  
DE CONSUMO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## 1. Helburua

Finantza-erakundeen aurrean jarrera kritikoa izatea, norberaren interesak eta beharrianak lortzeko estrategiak ezagutzuz.

Banku-eragiketa, finantza-zerbitzu eta erakunde mota jakin batzuk ezagutzea.

## 2. Edukiak

- Euskal Autonomi Erkidegoko finantza erakunde ohikoenak
- Banku-eragiketak
  - Eragiketa pasiboak: baliabideak erakartzeko
    - Aurrezki-libretak.
  - Eragiketa aktiboak: baliabideak inbertitzeko
    - Maileguak.
    - Transferentziak-intsuldaketak.
    - Banku-helbideratzea.
    - Kreditu-kontu korrontea.
    - Txartelak.
- Banku arloko kontzeptu edo terminoak
  - Komisioak.
  - Interesak.
  - Amortizazioak.
- Banku-zerbitzuak: Kutxazain automatikoa.
- Erabakiak arduraz eta autonomiaz hartzeko prozesua.
- Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak finantza-zerbitzuei dagokienez.

### 3. Ariketak

#### 3.1 Aurretikoa (maila aurreratua soilik)

*Aukera ezazu, orriaren behealdean agertzen diren hitzen artean zein den zuzena (bat baino gehiago egon daitezke) esaldi horietako bakoitza osatzeko.*

- VISA txartela zordunketako eta \_\_\_\_\_ txartela izan daiteke.
- Daukaguna baino diru gehiagoko gastu bat egin nahi dugunean, banku-erakundeari \_\_\_\_\_ bat eskatzen diogu.
- Erabiltzaileek dirua sartzen duten lekuari \_\_\_\_\_ edo \_\_\_\_\_ deritzo.
- Gure kontu korrontetik dirua ateratzeko modurik erosoena \_\_\_\_\_ erabiltzea da.
- Gure aurrezki-kontuan dirua sartzeko edo bertatik ateratzeko mugimenduak idazten diren koadernotxoari \_\_\_\_\_ deritzo.
- Etxebizitza bat erosteko maileguaren izena \_\_\_\_\_ da.

**MAILEGUA**

**BANKUA**

**KUTXA**

**KUTXAZAIN AUTOMATIKOA**

**KREDITU  
LIBRETA**

**HIPOTEKA MAILEGUA**

## 3.2 Tailerrari dagokionez

### ERDIKO MAILA

#### ARIKETA 1: FINANTZA-ERAKUNDEEN IZENAK

Ikasleak bi taldetan banatuko dira. EAeko erakunde arruntenak eta ezagunenak ezagutuko dituzte, “*memory*” baten bitartez.

#### ARIKETA 2: FINANTZA-DINAMIKA

Role-play baten bitartez, finantza-erakundearen funtzioaren eta zerbitzuen berri izango dute.

#### ARIKETA 3: FINANTZA-ZERBITZUAK

Jarduera honetan zenbait proba egingo dira, eta lehen eta bigarren jardueretan landutako kontzeptuetan sakonduko da:

##### “KATAMOTZA”

Jokoaren fitxa guztien artean, taldeak azkarrena izan behar du proban eskatzen diren fitxak taulan beren marrazki berdinen gainean jartzen.

##### “EGIA ALA GEZURRA”

Denbora-epe laburrean erabaki behar da egiten diren aipamenak egia ala gezurra ote diren.

##### “ASMAKIZUNAK”

Fitxaren irudia erakutsi gabe, taldekide batek finantza-kontzeptu bat azaldu behar die gainerakoei, hitzak soilik erabiliz, eta taldekideek kontzeptuaren izena asmatu behar dute.

#### ARIKETA 4: KUTXAZAIN AUTOMATIKOA.

Power point baten bidez, erabiltzaileek demo bat egingo dute, kutxazain automatiko batetik dirua ateratzeak berekin dakarrena azaltzeko.

## MAILA AURRERATUA

### ARIKETA 1: DOMINOA

Taldea bitan banatu ondoren, dominoa osatu beharko dute, termino bakoitza bere definizioarekin lotuz.

### ARIKETA 2: KARTARIK ALTUENA

Karta-joko baten bitartez, planteatzen diren probei irtenbidea eman behar zaie. Zenbaki bakoitza proba mota bati dagokio.

#### “ERROREAK”

Erroreak edo akatsak bilatu behar ditu taldeak, aurrezki-libreta eta kutxazain automatiko batean.

#### “URKATUA”

Ematen diren pistekin, eta hitzak zenbat letra dituen jakinik, aipatzen ari den terminoa identifikatzen saiatu behar da.

#### “KATAMOTZA”

Jokoaren fitxa guztien artean, taldeak azkarrena izan behar du proban eskatzen diren fitxak taulan beren marrazki berdinen gainean jartzen.

#### “PICTIONARY”

Arbelean marraztuz, taldeak zer termino den asmatu behar du.

#### “LETRA ZOPA”

Letra-zoparen barnean pistek aipatzen dituzten terminoak asmatu behar dira.

#### “EGIA ALA GEZURRA”

Denbora-epe laburrean erabaki behar da egiten diren aipamenak egia ala gezurra ote diren.

#### 4. Gaitasunekiko lotura

##### 4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorriko taldeak

	Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia	Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia	Elkarbizitzarako konpetentzia	Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
Erdiko Maila	✓	✓		
Maila Aurreratua		✓		

	Izaten ikasteko konpetentzia	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia	Matematikarako konpetentzia	Zientziarako konpetentzia
Erdiko Maila		✓		
Maila Aurreratua		✓		

	Teknologiarako konpetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	Arterako konpetentzia	Konpetentzia motorra
Erdiko Maila				
Maila Aurreratua				

## 4.2. Beste talde batzuk

	Ama- hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna	Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna	Matematika- gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean	Gaitasun digitala
Erdiko Maila	✓			
Maila Aurreratua	✓			✓

	Ikasten ikasteko gaitasuna	Gaitasun soziala eta zibikoa	Ekimenaren zentzua eta enpresa- espiritua	Kultura- arloko kontzientzia eta adierazpena
Erdiko Maila	✓			
Maila Aurreratua	✓			

## 5. Baliabideak

### Informazio gidak

- BANKU-ZERBITZUEN ESKULIBURUA. 2004. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. (Eusko Jaurlaritza).
- PRÁCTICAS ABUSIVAS EN LA CONTRATACIÓN BANCARIA Y DEFENSA DE LOS CONSUMIDORES (Abusuzko praktikak banku kontratazioan eta kontsumitzaileen defentsa). Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseilua. Morillas Jarillo, María José. 2002ko abuztua.
- LA PROTECCIÓN DE LOS CONSUMIDORES EN LAS INVERSIONES BURSÁTILES (Kontsumitzaileen babesa burtsa-inbertsioetan). Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseilua. Rodríguez de las Heras Ballell, Teresa. 2002ko maiatza.
- EL ACCESO A LA JUSTICIA DE LOS CONSUMIDORES DE SERVICIOS FINANCIEROS (Finantza-zerbitzuen kontsumitzaileen Justiziarako sarbidea). ADICAE (Banku, Kutxa eta Aseguruen Erabiltzaileen Elkarte). 2004ko ekaina.
- Liburuxkak:
  - Banku komisioak. Kontuak garbi!. Kontsumobide 2014
  - Gainzorpetutako familiei laguntzeko zerbitzua. Eusko Jaurlaritza 2012
  - Finantza-zerbitzuak. Kontsumo Zuzendaritza 2010
  - *Tarifas y comisiones por servicios de inversión* (Inbertsio-zerbitzuengatik tarifa eta komisioak). CNMV (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala).
  - *Lo que la publicidad esconde en los productos de ahorro-inversión* (Aurrezki-inbertsio produktuen inguruan publizitateak ezkututzen duena). ADICAE (Banku, Aurrezki Kutxa eta Aseguruen Erabiltzaileen Espainiako Elkarte). 2007ko abendua.
- CNMVren informazio-gidaliburuak (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala).



- “Qué debe saber de las órdenes de valores” (Balore-aginduen inguruan jakin behar duzuna).2007.
  - “Qué debe saber de opciones y futuros” (Opzio eta gerokoen inguruan jakin behar duzuna). 2007.
  - “Qué debe saber de los productos de renta fija” (Errenta finkoko produktuen inguruan jakin behar duzuna).
  - “Qué debe saber de protección del inversor servicios de reclamaciones” (Inbertsorearen babesari eta erreklamazio-zerbitzuei buruz jakin behar duzuna). 2008.
  - “Qué debe saber de sus derechos como inversor” (Inbertsore gisa dituzun eskubideen inguruan jakin behar duzuna).
  - “Qué debe saber de los chiringuitos financieros” (Finantza-txosnen inguruan jakin behar duzuna).
  - “Qué debe saber de los fondos de inversión y la inversión colectiva” (Inbertsio-funtsei eta inbertsio kolektiboari buruz jakin behar duzuna).
- KONTSUMORAKO KREDITUA ETA ZORPETZEA. Kontsumo Zuzendaritza. 2004
  - Bankuko kontratuak. Kontsumo Zuzendaritza 2002

## Web-orriak

- KONTSUMOBIDE. KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
<http://www.kontsumobide.eus>
- Espainiako Bankua  
<http://www.bde.es/bde/eu/>
- Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala(CNMV)  
<http://www.cnmv.es/portal/home.aspx?lang=eu>

- Aseguruen eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusia (DGSFP)

[www.dgsfp.mineco.es](http://www.dgsfp.mineco.es)

- Banku Bezeroaren ataria(Banco de España)

[www.bde.es/clientebanca/home.htm](http://www.bde.es/clientebanca/home.htm)

- Inbertitzailearen ataria(CNMV)

<http://www.cnmv.es/portal/inversor/Indice.aspx>

- Guztiontzako finantzak

[www.finanzasparatodos.es/](http://www.finanzasparatodos.es/)

## Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

### Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

Fax: 945 01 66 01

Email: formacion-

araba@kontsumobide.eus

### Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

Fax: 94 403 22 21

Email: formacion-

bizkaia@kontsumobide.eus

### Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

Fax:943 02 25 92

Email: formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus